



Joseba Tapia, Gema Sistiaga, Migel Anjel Arana eta Iker Goenaga, atzo Donostian.

Javier GALLEGO

# Trikiritxaren bi mito

■ Igandean omenduko ditu Trikitilari Elkarteak Rufino Arrola eta Primi Erostarbe. ■ Gernikako Santanape frontoian izango da jaialdia. ■ Azken urtebetean hil dira biak.

Mende honetako trikitixak eman dituen mitoen artean aipagarrienetakoak dira Rufino Arrola eta Primi Erostarbe. Lehena Bizkaiko trikitixaren esentziak gordetzen zituen azken esponentea zen. Bigarrenaren irrintziek historia egin dute eta hainbat grabaketatan erantzun daiteke oraindik ere haren ahots agudoa. Iaz hil ziren biak eta Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak omaldi postumoa egingo die igandean Gernikan.

## DONOSTIA

Joxean AGIRRE

Datorren igandean, arratsaldeko Setan, Gernikako Santanape frontoian gaurko trikitilari onenak bilduko ditu Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak atzoko bi trikitilari handiren omenez. Roberto Etxebarria eta Kepa Arrizabalaga, Paulo Apraiz eta Anu Ugarte, Alaitz eta Maider, Imanol Arrola eta Eusebio, Epelde, Montte eta Iturbidek osatzen duten hirikotea, Kepa Junkera eta Motriko eta Tapia eta Leturia izango dira agertokian.

Zerranda horretatik aipagarriena beharbada Imanol Arrola izan daiteke, Rufinoren iloba eta haren eskolan ikasia eta osabaren estiloa bereganatu duen bakarretakoa.

Aipagarria da baita ere Kepa Junkera eta Motriko aspaldi batean osatu zuten bikotearen berragerpena, antolatzaileek adizteraz eman zuten, «asko kostata lortua».

Luxozko kartelera horren arrazoi nagusia luxozko bi trikitilariren omendaldia da. Gema Sistiaga, Elkarteak lehendakaria, Joseba Tapia, Migel Anjel Arana eta Iker Goenaga mintzatu ziren bi trikitilari onenak.

## Irrintzi historikoa

Primi Erostarbe Araozten jaio zen 1907ko otsailaren 24an. Gurasoek taberna omen zuten. Aitak soinua eta amak panderoa jotzen zuten eta ez da harritzekoa, beraz, alabak ere txikitandik panderoa astintzen ikastea. Trikitilariok atzo jakit

tera eman zituzten bitxikeria ugarien artean, aipatzekoa da Primiren amak zuen goitizena ere, *Urrezko gurutzea* deitzen baitzioten, oso guapa zelako edo.

Gaztea zela, tabernako mahai gainean jarri eta berak bakarrik saiokak egiten omen zituen panderoarekin, jendeak dantzan egin zezan.

Mitoei gertatzen den bezala, hemen ere zail egiten da egia asmatziorik bereizten, dantzan ere berak bakarrik ikasi zuela esaten baitzuten, arratsaldeko eguzkiaren kontra jarri eta lurrean luzatzen zen bere itzala lagun harturik.

Hemezortzi urterekin Araoz utzi eta Donostiara etorri zen neska, bere baulean panderoa zuelarik. Hala ere, ezkondu arte ez zen panderoarekin plazarik piaz hasi. Joakin Azpeitia *Azpeiti* soinujolearekin hasi zen, baina bere bikote jakinekoena Usurbilgo Zialtzeta izan zen, 24 urte egin baitzituzten elkarrekin batera eta bestera. Azken urteak Jesus Piquer akordeoi jolearekin ibili zen eta bi disko ere grabatu zituen gizon horrekin. Trikitixa txapelketa askotan hartu zuen parte eta Irrintzi Txapelketetan zer esanik ez, Primi Erostarbe famatuagoa baita irrintziengatik panderoarengatik baino.

Irrintzia letrarekin egiten zuen bakanetakoa zen. «Heldu, heldu, neska horri gerritik eta pixka bat beheragotik...ai, ai, ai...» kantatzen zuen bere ahots agudoarekin.

Prentsaurrekoan Migel Anjel Aranak aipatu zuenez, 88 urte zituela iazko abenduan hil baino

hilabete lehenago egin zioten bisita eta, oso larri egonik ere, irrintzi ikusgarria egin omen zien.

Hamaika urte lehenago hila zuen senarra. Bere fansik handiena izan omen zen 60 eta 70eko hamarkadetan plazarik plaza ibili zenean. Emazteari begira malkoak ere ateratzen omen zitzaizkion.

Primiren irrintzi famatua gaur talde bat baino gehiagok erabili du bere grabaketetan.

## Bizkaiko trikitixa

Rufino Arrola izan da Bizkaiko trikitixaren azken esponentea. Berak hori ba omen zekien eta harro esaten omen zuen gainera.

Mungian jaio zen 1909ko maiatzaren 20an. Gaztetatik Leioizko Andrakas auzora joan zen bizitzera. 10 urterekin hasi zen soinua jotzen. Bere lehen agerraldi publikoa Zamudioko Geldos auzoan egin zuen 13 urterekin eta horik aurrera herriz herri ibili zen 18 urterekin errementari ofizioa ikasi eta lanean hasi zen arte. Arrolaren karrera horrenbestez bukatu zen. Hamaika seme-alaba izan zituen eta familia aurrera atera eta gero itzuli zen gaztetako bere afiziora, 58 urterekin Andrakaso errementariak Larrinaga-Guerrini soinua txiki bat erosi baitzuen berriro jotzen hasteko asmoarekin.

Soinua erosi eta bi hilabetera Urdulizen egindako txapelketa batean bigarren gelditu zen. Horik aurrera hogeitai bat aldiz hartu zuen parte txapelketetan. Kepa Arrizabalaga, Eusebio Rueda, Txetxu Urrutia eta beste zenbait panderojole izan ditu lagun.

1979an diskoa grabatu zuen Ots etxearekin, «Bizkaiko trikitilariak» izenarekin. 1992an Kepa Junkerak kanta eder bat eskaini zion, «Andrakaseko errementaria» izenekoa, eta Junkerarekin batean bideo-klip bat grabatu zuen.



Primi eta Rufino.

ARTXIBOKOAK

Andrakasen hil zen aurtengo otsailaren 87 urterekin. Bizkaiko trikitixak bere azken maisua galdu zuen. Azken urteetan ere gogor segitu zuen soinua jotzen, 1982ko EGIN Egunean, esate baterako. Joseba Tapiak trikitilari horren estilo berezia aipatu zuen. «Digitazioa egiteko beste modu bat zuten. Ez zituzten behatzak guk bezala mugitzen. Guri hauspoa zaratarik gabe mugitzen eta notak garbi jotzen erakutsi digute. Arrola lehengo eskolako zen horretan eta jotzeko modu horrek sekulako lilura sortzen du gaur ere», esan zuen.